



ALBOAN

ONG promovida por los jesuitas

PRENTSA OHARRA

Loraldia Festibalak behartutako migrazioaren drama ekarriko digu apirilaren 6an

Basoa dantzaldiaren antolaketan laguntzen du ALBOANek, asmo solidarioa izango delarik

Gaur goizean Bilbon Loraldi Festibala eta ALBOANeko ordezkariak migratzaileen egoeraren gaineko bi ekitaldi artistiko aurkeztu dituzte. Apirilaren 6an eskainiko dira Festibalaren egitarauaren barruan.

Basotik itsasora dokumentalaren emankizuna goizez, eta *Basoa* koreografia arratsaldean izango dira. *Dantzaz* izan da Larart egitasmoaren bultzatzailea eta sortzailea, *Hotz Zarautz* eta *Txikota Komunikazioaren* laguntzarekin. Ikuspegi eta helburu soziala du, eta kultura eta sorkuntzaren bidez errefuxiatuei lekua ematea eta haien egoera latza arintzen laguntzea du xede.

Aurkezpen honetan Amaia Ocerin, Loraldia Festibaleko komunikazio arduradunak; Fernando Sáenz de Ugarte, *Dantzaz* Konpainiako zuzendari nagusiak; eta Leire Morquecho, ALBOANeko Nazioarteko Lankidetzaren arduradunak hartu dute parte.

Basoa taularatzeko antolaketan laguntzen du ALBOANek, eta jasotako dirua Erdialdeko Amerika eta Mexikoko migratzaileentzako Giza Laguntzaren egitasmo batera zuzenduko da, *“Tejiendo caminos seguros, atención integral al desplazamiento forzado en el triángulo norte de Centroamérica”* deritzon egitasmora, hain zuzen.

Leire Morquechoren esanetan, “migrazioaren errealitate horrek interpelatu egiten gaitu, galderak egitera garamatza. Errealitate horri begiratu, eta buruarekin eta bihotzarekin aztertu eta inplikatu nahi dugu, lekuan bertan egiten dugun ekintza humanitarioan ez ezik, gure gizartean babesari eta migrazioari buruzko pertzepzioen aldaketan eta herritarren inplikazioan ere bai, egoera horri justiziazko etorkizun batekin aurre egiteko”.

Zentzu horretan, apirilaren 6an, koreografia hasi baino lehen, bere esperientzi pertsonala azalduko duen emakume gazte migratzailea gonbidatu du ALBOANek. Halaber, La Casilla polikiroldegiko atarian “Toki bat munduan”, 20 argazkiz (200 zm. x 85 zm) osaturiko ALBOANeko erakusketa izango da ikusgai. Erakusketak garaiotako drama humanitario handienetako batera gerturatzen gaitu: migrazio behartuak.

Sarrerak www.loraldia.eus webgunean, eta La Casillan egun horretan bertan, daude salgai.

Argibide gehiago: Edur Mintegi. 660 445 247 - 944 151 135. e.mintegi@alboan.org



ALBOAN

ONG promovida por los jesuitas

NOTA DE PRENSA

El Festival Loraldia nos acercará el drama de la migración forzada el próximo 6 de abril

ALBOAN colabora en la representación de la coreografía *Basoa*, que tendrá un fin solidario

Esta mañana representantes del Festival Loraldia y ALBOAN han presentado en Bilbao dos actividades artísticas en torno la situación de las personas migrantes, que se ofrecerán al público el próximo 6 de abril en el marco del Festival.

Se trata de la proyección del documental *Basotik itsasora* por la mañana, y de la coreografía *Basoa*, por la tarde. Ambas obras son parte del proyecto Larart. La compañía Dantzaz es la creadora e impulsora del proyecto Larart, en colaboración con Hotz Zarautz y Txikota Komunikazioa. Tiene una visión y objetivo social, y pretende ofrecer a las personas refugiadas un espacio y ayuda en su situación, a través de la cultura y la creación.

En la presentación han participado Amaia Ocerin, responsable de comunicación del Festival Loraldia; Fernando Sáenz de Ugarte, director general de Dantzaz Konpainia; y Leire Morquecho, responsable de Cooperación Internacional de la ONG ALBOAN.

ALBOAN colabora en la puesta en escena de *Basoa*, y todo el dinero recaudado en la misma irá destinado al proyecto de Ayuda humanitaria “*Tejiendo caminos seguros*,

atención integral al desplazamiento forzado en el triángulo norte de Centroamérica” que acompaña a población migrante en Centroamérica y México.

En palabras de Leire Morquecho, *“la realidad de la migración nos interpela, y nos cuestiona. Mirar esa realidad, pasarla por el entendimiento y el corazón, es implicarnos, no solo en la Acción Humanitaria que realizamos en terreno sino en el cambio de percepciones sobre el refugio y la migración, y la implicación de la ciudadanía para atender esta situación con un horizonte de justicia”*.

Para contribuir a ello, ALBOAN ha invitado a una joven migrante que el día 6 dará testimonio de su vivencia personal a los asistentes en los prolegómenos de la coreografía. Asimismo, a la entrada del polideportivo de La Casilla estará colocada la exposición de ALBOAN “Un lugar en el mundo”, compuesta por 20 fotografías de 200 cm. x 85 cm. que nos acerca a uno de los mayores dramas humanitarios de nuestro tiempo: las migraciones forzadas.

Las entradas están disponibles en www.loraldia.eus, y el mismo día en La Casilla.

Más información: **Edur Mintegi. 660 445 247 - 944 151 135. e.mintegi@alboan.org**